

Grebarekin bat egiteko agerraldia

Astearte iluntzean, sektore ezberdinetako ordezkariak Goikoplazan elkartu ziren. Urtarrilaren 30eko Greba Orokorrean parte hartzeko deialdia luzatu zuten / 8-9



Minbiziak eragindako hausnarketak liburura eraman ditu Ainhoa Jauregi urnietarrak / 10



Sagardotegietan mahaia hartzeko online eskaera nabarmen igo da, azken urteotan / 5



TXOTX GARAIAN MURGILDUTA

Eskualdeko sagardogileek denboraldi berriari ekin diote. / 2-5

Zertan gastatu aurrekontuko 150.000€?

parte hartuz
2020

Aurkeztu zure proposamenak
otsailaren 2ra arte

INFORMAZIO KARPAK urtarrilaren 24an
eta 25ean PHOTOCALL-arekin

**Urtarrilak 24,
ostirala:**

- 10:00-14:30
Etxeberri plaza.
- 17:00-20:00
Guria ondoan.

**Urtarrilak 25,
larunbata:**

- 10:00-14:30
Kiroldegi
kanpoaldean



Urietako
udala



Unai Agirre, Jon Pagola eta Aitor Iguaran. AIURRI

Euskal Herriko urre likidoa

Hiru urte dira Euskal Sagardoa jatorrizko izendapena martxan jarri zela. Euskal Herriko sagarrarekin egindako sagardoa du ardatz. 49 sagardotegi batu dira izendapenera dagoeneko; 2019an hiru milioi sagardo litro ekoiztu ziren, eta bost milioi kilo sagar erabili

Andoni Urbistondo HERNANI

Sagardoak tradizio handia du gurean, eta aspaldi. Ternua aldera joaten ziren arrantzaleek eramaten zuten, ontzietan, mende batzuk atzera, fruta zukua kontsumitzeko beharrak jota. Mende honetan, eta sagardoari dagokion balioa emateko asmoz, ekimen asko jarri dira martxan. Azkena, eta itxuraz sendoena, bidea egingo duena, Euskal Sagardoa jatorrizko izendapena proiektuarena. Jaurilaritzaren babesa du, eta Euskal Herriko baserrietako larreetako sagarrarekin ekoiztutako sagardoa bakarrik onartzen du. Bertakoa, hemengoa, gurea. Botiletan zinta gorri bat daramate Euskal Sagardoa izendapeneko ontziek, kupeletan bezala.

Unai Agirre da jatorrizko izendapena elkarteko koordinatzailea: “Sagasti asko zuten sagardo ekoizleek jatorrizko izendapen bat sortzeko ekimena abiatzea erabaki zuten. Ekimen horrek administrazioaren babesa izan zuen hasieratik, administrazioak interesa duelako bertako produktu baten sustapenean, eta beste jatorrizko izendapen bat sortzen. Eusko Jaurilaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sartu dira, batez ere Gipuzkoako buru-belarri, sagastien kontuarekin”. Baserri mundua bere unerik gozoena ez dela bizitzen ari dio Agirrek, “eta sagastiak landatzeko ekimenak beste ate bat ireki du baserri-arrantzat”.

2016an hasi zen egungo jardunean Agirre. 48 sagardotegi batu dira izendapenera egun, eta hasieran 38 ziren. “250 sagar ekoizle ere ba daude, datu garrrantzitsua”. Homologazio sistema zorrotza du izendapenak,

parametro batzuk bete behar dituen derrigor. Esaterako, sagar guztiek ez dute balio jatorrizko izendapenerako, “baina gero eta sagar gehiagok gaindizten dute langa”. Baserri eta sagastietako azpiegitura bera ere nahiko zaharkitua dagoela dio, “eta hori berritzeko lanean ere ari gara. 500 hektarea sagasti daude jatorrizko izendapenean egun, Gipuzkoan 100 hektarea berri landatu dira azken bost urtetan”. Eta azken helburua, ozen: “Kalitatezko sagardoa ekoiztea, bertako sagarrarekin egindakoa”.

Eula eta Itxasburu sagardotegiak Euskal Sagardoa jatorrizko izendapeneko kide dira. Merkaturatzen duten sagardo kopuru handiena bere larreetan landutako sagarrarekin osatzen dute. Erosi behar dute, noski, euren baserri lurretan ekoizten ez den sagarra, baina gehiena euren lur sailetan daukate. Jon Pagola Besabitik Itxasburura aritzen da saltoka, hurrengo hilabeteetan Itxasburun sarriago: “Sagardoaren kalitatea asko hobetu da azken urtetan. Euskal Sagardoko botiletan azken hamarkadatan baserrian egin dugun lana islatzen da. Bezeroak gero eta gehiago barneratzen du sagardoa etxeko sagarrarekin bada, sagardoak indarra hartuko duela. Eta etxeko sagarra, goizean jaso eta arratsean dagoeneko zukua da. Atzerrian erosten duzun sagarrak igual hiru egun behar ditu zuregana iristerako, kamioian ere kaltetu daiteke, bide horretan ere eguraldiak eragin bat edo beste izan dezake...”.

Etorkizunera begira ere baikorra da Itxasburuko ekoizlea: “Gaitzen bat, edo uztatxarren bat ez badago, hamarkada bat

URE LURRA

SAGASTIEN LANDAKETA BULTZATUZ
BERTAKO SAGARDOAREN SUSTAPENERAKO

EUSKAL SAGARDOA

BERTAKO SAGARRONDOAK, BERTAKO SAGARRAK, BERTAKO SAGARDOA

gipuzkoa.eus

pasata sagardo gehiena bertako sagardoarekin egindakoa izango da". Datuak eman ditu: "Itxasburun, egun, proportzioa %80 etxekoa, %20 beste sagastietakoa litzateke". Sagastiek lana ematen ote duten galdetu diogu: "Base-riak ematen du lana", bota du, bertsolarien pare, ti-ta. "Base-riari beti dago lana. Guk zazpi hektarea ditugu, eta ekoizpena osatzeko etxetik kanpo erosten dugu sagarra".

Aitor Iguaran: "Ona dena ordaindu egiten da"

Eulako nagusia da Aitor Iguaran, eta azken hamarkadan ekoizpenean eman den hobekuntza jarri du balorean: "Lehengai gero eta hobeak erabiltzen ditugu, garbitasun handiz jokatu, baldintza egokienak bilatu, sagar mota ezberdinen nahasketa egin... Euskal Sagardoa famatzeko trazarabildade bat dago, inspektzioak egiten dira, barietate askoko sagarrak erabili, eta kalitateko sagardoa lortzen da, gure base-rietako sagarrarekin eginak. Etxeko sagastiko sagarraren kalitatea askoz hobeto kontrolatzen da. Kanpotik ekartzen dena ezin da kontrolpean eduki. Batzuetan oso heldua etortzen da, ez zuk nahi duzuen barietatekoa...". Eulan %90-10 proportzioan dabilta, etxeko-kanpoko sagarra erabiltzen, eta uzta-aren baitan". 10.5 sagasti hektarea dituzte Eulan, 5.000 sagasti, eta kalitateaz mintzo, argi mintzatzen da Iguaran: "Sagardoaren ohiko kontsumitzaileak kalitatea gustuko badu, ez dio erreparatzen botila euro erdi garestia goa izateari".

Unai Agirre ere bat dator bi ekoizleekin: "Kanpotik sagarra ekartzearena bukatzen ari da, etxeko sagarra balioa hartzen

ari baita. Kanpoko sagarraren beharra, egon, badago, baina gero eta gutxiago. Sagastiek normalean urte on bat izaten du, eta bestea ez hain ona, baina sagar ekoizpena hobetuz eta profesionalizatzen joaten bada, azkenean ekoizpenak berak ere hobera egingo du". Agirrek zintzo dio Euskal Sagardoa ez dela sagardo on bakarra: "Euskal Sagardoa jatorrizko izendapenean ez dauden sagardo onak ere egongo dira, ziur, baina niretzat Euskal Sagardoa da etorkizuna. Jaurlaritzaren babesa du, Espainiako Atzerri Ministerioarena, eta Europakoa ere bai". Nafarroan ere ari omen dira lanean, sagar ekoizleek izendapenean sartzeko eskatu dutela dio koordinatzaileak.

Amurik ez, sagardo egile gehiago erakartzeko

15 urteko plangintza egin dute jatorrizko izendapenean. 2016an hasi ziren, lanean, eta bosgarren urtean, ekoizten den sagardo guztiaren %20 bertako sagarrarekin ekoiztu nahi lukete. 10 urtera, 2026an %50a, eta 15 urteko epean, ekoizten den sagar kopuru guztia bertako sagarra izatea litzateke erronka. "Epe horiek ekoizleei tartea emateko asmoarekin finkatu dira, epekin-eta ito ez daitezen, eta pixkanaka izendapenean sar daitezen", dio Agirrek. Izendapenak dagoeneko ez du erakartze lanik egiten. "Etorriko dira ale batzuk gehiago, baina gure premia na-

HIRU MILIOI LITRO EKOIZTU DIRA 'EUSKAL SAGARDOA' JATORRIZKO IZENDAPENAREKIN



"Lehengai gero eta hobeak erabiltzen ditugu, baldintza egokienak bilatu", Iguaranek apustu berria zein den deskribatu du. AIURRI

gusia merkatuak Euskal Sagardoa jatorrizko izendapena dagoela jakitea, barneratzea da, ez sagardo egile gehiago gurera biltzea. Ez sagardoa bera, sagardoa aspalditik baitago gure etxe eta baserrietan, Euskal Sagardoa baizik. Merkatuari esan behar diogu Euskal Sagardoa daukagula, balorean jarri jatorrizko izendapena".

Horregatik zorroztu dira kontrolak jatorrizko izendapenean: sagarrean, sagardoan, kupeletan, eta botilaratzeko unean. Botilaratu baino lehen, ekoizleak parametro jakin batzuk gaintitu behar ditu, analitikak egin. Kata bat ere gaintitu behar dute, eta ekoizle eta katako egileek iritzi edo irizpide ezberdinak izan ditzakete. "Irizpide ezberdintasuna gero eta txikiagoa da, dena den", dio Agirrek. "Jatorrizko izendapenak bi atal ditu, biak

%50ean partekatua: sagar ekoizleak, eta sagardo ekoizleak. Biak independenteak dira, eta gero, erabaki komunetan adostasuna lor dezaten saiatzen gara". Baina ekuazioa garbia omen: sagastia zaindu, sagardoa hobetu. Sagastien kontuan Gipuzkoako Aldundia laguntza onak ematen ari dela nabarmentzen du Agirrek: "25 urteko agiri bat sinatzen da, eta baldintza jakin batzuk bete behar dira: aldapa gutxiko terrenoak, baserriko makinak lana egin dezaketen lur eremuak...".

Datuak hausnartzeko modukoak dira: hiru milioi litro sagardo 2019an, bost milioi kilo sagarrekin, 'Euskal Sagardoa' jatorrizko izendapenarekin. Denera 11-12 milioi litro ekoiztu ziren, horietatik %70 euskal sagarrarekin. Unai Agirreraren ahotan, "bada bertako sagarra

izanda ere, Euskal Sagardoa izendapenean sartu ez dena, kalitate parametroengatik". Txotx garaia hasi berria den honetan, ohitura aldatetzeko mintzo zaizkigu Itxasburu eta Eulako kideak. Sagardotegien urrezko aroaz galdetuta, "irin guztiak ez dira zuri", dio Iguaranek. "Orain mundu guztiak nahi du larunbat eguerdian bazkaldu, baina gero aste egunetan bizpahiru mahai lotzeko komeriak ditugu". Eta txotx garaia da onena sagardo ekoizleentzat. "Gazteak dagoeneko ez dira aste egunez gauetan kalera irteten, alkoholemia kontrolek ere jendea beldurtu dute", esan du Pagolak. Txotx-aren indarra orekatzeko ametsa dute biek ala biek: "botilaratzearen bitartez lortzen diren mozkinak handitzea, txotxaren menpekotasuna txikitzea". Hala bedi.

EULA
TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA 943 552 744 - 647 437 703
www.eulasagardotegia.com

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA
Ereñozu auzoa, z/g
HERNANI
943 55 58 46
616 287 867
larre-gain@larre-gain.com

Zatortze
Sagardoa Urnietan bizi da
Ongietorisk sagardozaleak, Urnietara!
Goza ezazue gure landa gunarekin, harrigunarekin eta sagardoaren kulturarekin



"Sagardogileei lana erraztu zaie"

AMAIA ZUBELDIA GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEKO KIDEA

Internet bidezko txotx erreserben inguruan, Sagardoa.eus webgunea erreferentziatzeko gune bilakatu da. Datua argia da: Erreserben %70a online egiten da

Olatz Lasa ANDOAIN

Iparragirre sagardotegian egin dugu hitzordua, Zubeldiak Internet bidezko erreserben inguruan dituen datuak jasotzeko asmoz. **Zenbateko igoera izan du sagardotegien Internet bidezko erreserbak?** Eboluzio oso handia izan du. Konturatu gara sagardogintzan sagardoa.eus erreferentziatzeko webgune bilakatzen ari dela. Datu batzuk ematearren, iazko urtarrean jarri genuen martxan, txotx garaia hasieran, urte osoan egin dugu kontaketa eta konturatu gara erreserba guztien %70a online izan dela; %30a geratu da telefonozko edo email bidezko erreserbatan. Datu horiekin ikusi dugu bezeroari gustatu zaiola erreserba egiteko sistema berria, erraztu egiten zaiolako lana, gehien batean. **Euskaldunok zenbateraino erreserbatzen dugu sagardotegia online?** Hori da beste datu esanguratsua, iazko datuetan ikus daitekeena. Gehienak gipuzkoarrak, bizkaitarrak dira eta nafarrak ere badaude, zenbait arabar eta iparraldeko zenbait ere erabili du aplikazio edo erraminta hori.

Atzerritarren kasuan, berriz, menuak online erreserbatzeaz gain, bestelako produktuak ere eskatzen dizkigute: irteerak, esperimentziak...



Amaia Zubeldia mugikorra eskuetan sagardotegiko erreserba online egiten. AIURRI

Online bidezko erreserbak sagardogileari lana erraztuko ziola adierazi zenuen Aiurri, iaz. Urtebete igarota, zer diote sagardogileek?

Proiektu pilotu gisa planteatu genuen, iazkoa. Bi helburu ditu erramintak. Bata, bezeroari erreserba erraztea. Guk errazten

dieguna da sagardotegia bilatzea, eta gero erreserba online egitea aurrerapen bat ordainduz. Bigarren helburua sagardogileak da. Txotx garaian, sagardotegiko pertsona bat telefonora lotuta egon ohi da egun guztian zehar. Online bidezko erreserbekin dei kopurua jaitsiz doa, eta horrek sagardogileari lana errazten dio. Eraldatze bat da, telefonotik, liburutik eta boligrafotik ordenagailuetara edo mugikorrera. **Molde berrietara erraz egokitu dira?** Beldurrez ginen, baina egia esan, sagardogileek oso positiboki

"ONLINE BIDEZKO ERRESERBA ERALDAKETA DA, PAPERETIK ORDENAGAILURA"

Bideoa ikusgai

Duela hilabete batzuk, Aiurri.eus webgunean "Sagardoaren kultura" izeneko atala zabandu zen. Bertan, sagardogintzari loturiko informazio interesgarria aurki daiteke. Bereziki, bideoak. Sagardoetxeako txotx irekiera edota Amaia Zubeldiari egindako elkarrizketa dagoeneko ikusgai daude.



Nere Lizeaga. AIURRI

Aurtengo sagardoaren xehetasunak

Euskal Herrian, 8,5 milioi litro bertako sagarrarekin ekoiztu dira. Jatorri izendapenarekin, 3 milioi

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardoetxeako Nere Lizeagak azaldu duenez, "heldutasuna iazkoa baino apur bat atzeratuago etorri da eta azukre gutxiago duenez, alkohol ehuneko txikiagoa du sagardoak".

- Aurreko urteetan baino kolore alaiagoa du.
- Usaimenean oso garbia da. fruta freskoaren usaina du.
- Karboniko maila ona duten sagardo naturala da, kupeleko hartxidura ondo egin baita.
- Orokorrean sagardo oso orekatua da.

2019ko uztarekin 12 bat milioi litro sagardo ekoiztu dira Euskal Herrian, 8,5 milioi bertako sagarrarekin.

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea

KUPELA: sagardoaren hotela

HK10: sagardozaleen logela

HOTEL HK10 HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

SAGARDOA.eus

hitzak eratu

EZ ZAITEZ EROTU!

HEMENDIK AURRERA ERRESERBATU ZURE MAHAIARA KLIK BATEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

GAZTANAGA SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

450 lagun Goikoplazan

Datorren urtarrilaren 25ean, arratsaldeko sei eta erdietan hasita, Larramendi eguna antolatuko dute herriko hainbat elkarte eta eragilek, euskalari eta euskaltzale andoaindarrari egin nahi zaion gorazarre eta omenaldi gisa.

Ekintza nagusia Ezina Egina leloa Goikoplazan irudikatzea izango da, giza-irudia 450 lagunek osatu beharko dutena. Parte hartzeko nahikoa da izena eman eta bertara azaltzea telefono mugikorrarekin, hori bai, telefonoak linternatxo beharko du eta bateria ongi beteta. Izan ere Ezina Ekina esapidetako hizkiak osatzen direnean, telefono mugikorraren linterna guztiak piztu eta argiztatu egingo da, Goikoplazako iluntasunean.

Ikuskizun xumea baina dotorea, eta ondoren, parte

hartzen duten guztientzat txokolate beroa eta bustitzeko gozoren bat. Antolatzaileek 450 lagun inguru biltzeko erronka plazaratu dute, hizki guztiak behar bezala irudikatu eta argiztatu ahal izateko. Pena litzateke Larramendik hain ezagun egin zuen Ezina Egina esapidea guztiz osatu gabe geratzea.

Horregatik, antolatzaileek dei egiten diete andoaindarrak euskaltzaileei, heldu zein gazteei, izena eman dezaten. Nahikoa da horretarako bazkuna@larramendi.org helbidera idaztea izena eta bi deiturak eta telefono zenbakia. Telefono deia ere egin liteke 656-782-521 zenbakira edo whatsapp mezua bidali. Esan bezala, urtarrilaren 25ean nahikoa izango da parte hartu nahi dutenek bere telefono mugikorra eramatea, bateria

ongi beteta, argia emateko adina.

Ariane Obineta, Larramendi Bazkuneko lehendakariak dei egin die bereziki Andoaingo gazteei adieraziz "Larramendi eguna Andoaingo euskalgintza biziberritzeko eta gaztetzeko erronka gisa ulertu behar dugu, aurrera egin beharra baitugu garbi jakinez non eta noiz abiatu ginen euskara gure hizkuntza gisa aldarrikatzeko ahaleginean. Eta hasiera hura Manuel Larramendiren eskutik etorri zen orain 300 urte inguru. Gazteon erantzukizuna da soka horri jarraipena ematea. Urtarrilaren 25ean Goikoplazako ekintzan parte hartzera deitzen ditugu Andoaingo gazte guztiak. Mugikorra eraman eta euskaraz zinez bizi gaitezkeela adieraziko dugu. Ezina ekinez egin baikenuen!"



andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urtarrilaren 31. euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urdieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ**

ALJATUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINO UDALA

Urdieta udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hizkuntza Berlindarazko Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikain**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

"Bertako produktuek harrera ona dute"

NOELIA HORNERO ETA ANA ARRAIZA ONDARRETA KALEKO DENDARIAK

Tokikoa, bertakoa, auzokoa. Horixe litzateke Ondarretako Eroskiko dendaren definizioa. Urte luzez gertuko zerbitzua eskaintzen ari dira, arduradun berriekin

Erredakzioa ANDOAIN

Nondik nora dendaren ardura hartzeko erabakia?

Gure ugazabak erretiroa hartu zuen, eta guri luzatu zigun ardura hartzeko proposamena. Negozioa geuk hartzea edo hirugarren pertsona bat bilatzea, bi aukera horiek zituen buruan. Eskaintza kontutan hartu eta ordutegietan eta oporraldietan lortutakoa balioan jarri genuen. Ez genuen atzera egin nahi, lorpen horietan. Gure egoera aldatu zitekeen, hirugarren pertsona sartuz gero. Orain ere aldatu da egoera, baina hobera esango nuke. Beraz, gure bizitza pertsonala kontutan harturik, ardura guregain hartzea erabaki genuen.

Hobea al da norberarentzat lan egitea? Zein abantaila eta desabantaila ditu arduradun izateak?

Norberarentzat lan egitea hobea da, besteen baimenen zain egon gabe egon zaitezkeelako. Baina ardurak handiagoak dira. Lehen urtean bereziki, eta martxa hartu arte, udan ere lanean egon behar izan dugu. Baina esperientzia ona izan da.



Ana Arraiza eta Noelia Hornero Ondarretako Eroskiko arduradunak. AIURRI

Denda nola dagoen ikusita, eta bezeroen erantzuna ikusita... oso esperientzia ona izaten ari da. Merez du.

Auzoko denda da, zuena. Zein harreman mota sortzen da bezeroekin?

Oso ona. Anak hemen bost urteko esperientzia zuen, eta neuk hamabost. Beraz, bezeroarentzat aski ezagunak gara. Emakumeak haurdun ikusi ditugu, haur piloa jaiotzen ikusi, auzotik joan den jendea, auzora etorri diren bizilagun berriak...

Aldaketak egin ditugu dendaren egiturari, eta produktu berriak txertatu ditugu.

Dendariak betikoak gara, eta bezeroak ondo hartu ditu aldaketa eta moldaketa guztiak.

Konfiantza sortzen dugu, eta esate baterako, Andoaingo Caritasek gure dendan egiten ditu erosketak, eta baita ere La Salle-Berrozpeko irakasleek ikastetxean hainbat ekimen antolatzen dituztenean.

Zer da auzotarrek gehien kontsumitzen dutena?

Ogia eta fruta saltzen dugu gehien. Likidoak ere, ura bereziki. Bitxikerien artean, Tolosako baserri batetik ekartzen ditugun letxuek harrera bikaina izaten dute. Bertako yogurtak, Mahalakoak. Berriki txertatu ditugu gure eskaintzan eta oso harrera ona izaten ari dira.

Ekoizleekin eta hornitzaileekin zer nolako harremana duzue?

Oso ona. Gaztañagako sagardoa bertan saltzen dugu, eta lehen aipatu ditugun letxu saltzailearekin eta Mahalakoeekin harreman zuzena eta gertukoa dugu.

Rosario bertako ekoizle baten babarruna saltzen dugu, eta erosleek oso ona dela diote.

Andoaingo baserriar batek hurrak eskaini dizkigu, eta salgai jartzeko asmoa dugu.

Tokiko merkataritzak gertutasuna eskaintzen du. Zer duzue zuek esateko?

Hauxe dela gure ogibidea. Elkarren artekoa da gertutasuna. Merkatalguneetan harremana askoz hotzagoa da, eta muga asko jartzen dituzte. Denda honetatik sartzen denak kaixo esateko duen moduagatik, ia bizitza osoko bezeroa dela esan daiteke. Erosle batzuk oporretara joan eta handik ekarritako oparixoren bat ekartzen digute. Detalle horiek tokiko merkatariekin ematen dira, saltzaile handiekin ez.

Zer egin daiteke tokikoa sustatzeko?

Herrian bertan erosketa egitea. Hau da, Andoainen. "Ondarreta janari denda, zure auzoko dena", horixe da gure lema.

HAU ERE BADUGU!

Aurreko asteko elkarrizketa nagusia



Bi aste atzera, elkarrizketaren berri ematen zuen astekariko promozioak interes handia piztu zuen. Eta, noski, baita aurreko Aiurrin argitaratu zen elkarrizketak ere. Oscar Villafañe Merinoren elkarrizketak irismen handia izan du sarean. Javierortiz.net/voz/iturri blogean, esaterako, elkarrizketa erdarara itzuli zuten. Irakurgai dago, helbide horretan bertan.

Santa Ageda bezpera Andoainen

Aurten, Larramendi Bazkunak ez ezik Goiburuko auzotarrek ere Santa Ageda bezperan kopla kantak biziberrituko dituzte.

Otsailaren 4an arratsaldean zehar, baserriz baserri ibiliko dira eta ondoan izango dituzte Unai Ormaetxea eta Ion Beloki bertsolariak eta Nekane Zabala trikitilaria.

Urtero legez, euskal usadio zahar honek auzoko haur, gazte eta helduak bilduko ditu, San Esteban elizaren aurrean hitzordua jarri eta gero.



Telegram erabiltzailea al zara? "Aiurri Andoain" kanala bila ezazu, eta jarrai gaitzazu

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram





Asier Serrano. AIURRI

Loreleiren hiru kantu Aiurri.eus gunean ikusgai

Andoaingo Basteron eskainitako kontzertuaren hiru abesti ikusgai daude Aiurri.eus webgunean

Erredakzioa ANDOAIN

Hogei urteko isilunea eta gero, itzulera iragarri zuen Asier Serrano eta Mikel Gorosabelen taldeak. Berrabiatzea Andoainin egin zuten, Bastero Kulturguneko auditorioan. Kantuaren alde egin zuten, sofistikazio teknikoak alde batera utzita. Internet sarean taldeari buruzko bideoak topatzea ia ezinezkoa da. Aiurrik, Aiurri.eus guneko bideoen atalean, aurreko ostiraleko emanaldiko hiru kantu eskegi ditu.

Dagoeneko, beraz, "Naizena nigan", "Nahia paradisuan" eta "Hiri gorri honetan" kantuen zuzeneko bertsioez gozatu daiteke.



Mikel Gorosabel. AIURRI



Astearte arratsaldean grebarekin bat egiteko taldeko argazkia atera zuten, Goikoplazan. AIURRI

Grebarekin bat egiteko deialdia

Pentsiodunak, mugimendu feminista, lan munduko sindikatueta ordezkariek, gazteak..., datorren urtarrilaren 30eko greba deialdiari bultzada emateko sektore ezberdinetako ordezkariek Goikoplazan elkartu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte-mugimendua, bazterketa sozialaren aurkako plataformak, sindikatueta ordezkariek..., astearte arratsaldean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta sinatu zuten hainbat eragile Goikoplazan elkartu ziren. Helburua grebarekiko atxikimendua adieraztea zen. "Lan, pentsio eta bizitza duina" izenburupean, gizartea grebaren alde mobilizatzea nahi dute. Egun hauetan sentsibilizazio lanetan dabiltza, Andoaingo eta eskual-

deko gainerako herrietan. Dozenaka enpresetan geldialdia egingo dutela dirudi. Sindikatuak, behintzat, eskualdeko ehundik gorako enpresetako langile komiteen atxikimendua iragarri dute.

GREBA GIROTZEKO, URTARRILAREN 29AN KAZEROLADA BAT ABIATUKO DA GOIKOPLAZATIK

Datozen egunetan greba prestatzeko sentsibilizazio lanarekin jarraituko dute. Grebaren atarian, urtarrilaren 29an, kazerolada egiteko hitzordua ipini dute. Andoainin 21:00ak aldera hasiko da, eta herrigunean barrena ibiliko direla adierazi dute.

Eskubide sozialen Kartaren deialdiaren abiapuntuan pentsiodunen mugimendua dago: "Bi urtez kalean egon eta gero, jauzi kualitatibo bat emateko beharra planteatu zuen mugimenduak, beste kolektibo batzuk batzera deituz".



Grebaren afitxa. EHKARTASOZIALA

Grebarekin bat datozenak

- Sapa.
- Orbelan.
- Plastigaur.
- Thyssen.
- Mendiola.
- Andoaingo eta Urnietako udal langileak.
- Ambulancias Gipuzkoa.
- Altradi.
- Eta abar...

"Greba Orokorren atarian, indartsu gaude"

ELA eta LAB sindikatuek agerraldi bateratua egin zuten, asteartean. Urtarrilaren 30eko grebaren eskaera zerrenda zein den azaldu zuten, "Lan, pentsio eta bizitza duina" lelo nagusian laburbiltzen direnak

Jon Ander Ubeda HERNANI

Greba egiteko arrazoiak zeintzu dira? Laburbilduz, hauexek: Zapatero eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea, pentsiodunei ezarritako murrizketekin haustea, eskubide sozialak bermatzea edo Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioa eskatzea.

Lan erreformak bertan behera:

- "Herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenestea estatu mailako hitzarmenen gaineratik".
- "Beheko esparruko hitzarmen batek goragoko esparruko beste baten baldintzak okertzeko aukerarik ez izatea".
- "Lan eskubideetan egindako murrizketak atzera botatzea".



LABeko June Arrieta eta ELAko Jon Iztueta, agerraldiko bozeramaileak. AIURRI

2011 eta 2013ko pentsio murrizketak indargabetzea:

- "Erretiroa 65 urteetara".
- "Erretiro aurreratua 61 urterekin, 30 urte kotizatu badira".

- "Pentsioa kalkulatzeko 15 urte hartzea kontuan".
- "Pentsioetan KPI-a bermatzea".
- "Pentsioen jasagarritasun faktorea kentzea".

Pentsioen inguruko aldarrikapen osagarriak

- "1080 euroko gutxieneko pentsio".
- "Pentsio sistemaren finantziazioa bermatzea, kotizazio sozialen eta zergen bidez".
- "Lanaldi partzialeko kontratuetan kotizazioak zenbatzerakoan zigorrik ez aplikatzea. Lan egindako egun bakoitzeko, kotizatutako egun bat konputatzea".

Eskubide sozialen bermea

- "Menpekotasun egoeran dauden guztiei laguntza zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa".
- "Diru sarrerak bermatzeko errenta %100 ean parekatzea lanbide arteko gutxieneko soldatarekin. Eta azken hori %50ean igotzea. Bi pertsonak osatutako ohiko unitatean, eta beste %50 3 pertsona edo gehiagoko unitatearekin".
- "Alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea lege bermatuz".

Esparru propioa

- "Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioa".

Bozeramaile lanetan aritu ziren LABeko June Arrieta eta ELAko Jon Iztueta andoaindarra.

Santa Agedako erronda prestatzeko entsegua

Kantak prestatzeko saio bakarra egingo dute, datorren urtarrilaren 29an hain zuzen

Aiurri komunitatea

Larramendi Bazkuna / ANDOAIN

Urteroko lege, aurten ere Manuel Larramendi Kultur Bazkunak otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidetzarekin.

Urtero-urtero ehun lagun inguruk ematen dio errondari hasiera Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren parean, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren. Arratsaldeko 18:00tik aurrera herriko kaleetan barrena ibili ohi dira Santa Ageda bezperako koplak kantari, baita neguko Otso beltzarenak ere. 20:30ean inguru eman ohi diote amaiera errondari.

Entsegu bakarra, urtarrilaren 29an 19:30ean

Baina Santa Ageda bezpera iritsi aurreko egunetan parte hartuko duten askok koplak eta kantak prestatzen dituzte Ramon Beraza musikariaren zuzendaritzapean. Aurten, ahotsak, kantak eta soinuak prestatzeko saio bakarra egingo dute: urtarrilaren 29an izango da, asteazkenarekin, iluntzeko 19:30ean Pio Baroja kaleko Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian.

Larramendi Bazkunetik adierazi digute edozein herritarrek parte har dezalela errondan, tradizioak agintzen duen bezala jaztea eta kantatzea dela jartzen diren bi baldintza bakarrak, eta ahal dela -hori bai- entsegura joatea. Aurten, gainera, ezustekoren bat ematekotan dira, aurrenekoz berariaz osaturiko koplak kantatuz eta Santa Agedaren lagun berriren bat izendatuz. Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Berrozpeko Ontza Elkartean izena aurretik ematen dutenek.

Urtarrilak 30, Greba Orokorra

JUNE ARRIETA EUSKAL HERRIKO KARTA SOZIALA - LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIA

Urtarrilaren 30ean Greba Orokorra izango dugu, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitua. Euskal sindikatuok eta eragile sozial ugari (pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte-mugimendua, bazterketa sozialaren aurkako plataformak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sarea...) osatzen dugu Karta.

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gandi, modu zabalagoan "planto" egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz. Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak

biltzen dituen Karta osatu genuen, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditugu. Orain, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia.

Gaurko pentsiodunei eta etorkizunekoiei, guztioi eragiten digun borroka da pentsio sistema publikoa defendatzea, lan harremanetarako eta babes sozialerako sistema propioa lortzea, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzea, jubilazio adina murriztea, edota erosahalmena lege bermatzea.

Gainera, Greba Orokorrekin, eta aurretik lantzen ari garen dinamikekin,

prekarietatearekin amaitu eta lan eta bizi baldintzak duintzeko neurriak hartzeko beharra jarri dugu mahai gainean, horien artean: lanaldia 35 ordura jaistea, 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea, soldata-arrakala amaitzea nahiz azpikontratazioetan enplegua eta lan-baldintzak bermatzea.

Era berean, egun ukatuak diren eskubide sozialak aitortzea erreklamatzeko; alokairu sozialeko etxebizitzak bermatzea, zein menpekotasun egoera guztiei erantzun egokia ematea publiko, unibertsal eta doakoaren bidez. Bizitza erdigunean jarriko badugu, ezinbestekoa da zaintza lanak ikusarazi, duindu eta bermatzea.

Garaia da azken urteetan murrizketekin kendu diguten guztia berreskuratzeko, eta dagozkigun eskubideen alde kalera ateratzeko. Pentsio, lan-baldintza eta bizitza duinak nahi ditugu eta lortu arte borrokan jarraituko dugu, planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko eta sozial kapitalista, neoliberal, patriarkal honek ezartzen duen logikaren aurka.

Honela gauzak, erabaki dugu lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko mobilizazio dinamika abiatzea.

Ondo dakigu presioa egitea beharrezkoa dela patronalak eta instituzioek (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua, Espainiar Gobernua) gure eskakizunen aurrean amore eman dezaten. Horregatik, datorren urtarrilaren 30ean, Greba Orokorra.

"Minbizia tabua da"

AINHOA JAUREGI "PARTE DE MI" LIBURUAREN EGILEA

Minbiziari buelta eman dio. Edo ematen ari da. Alaba erditu eta Hodgkin-en linfoma antzeman zioten. Esperientzia hori liburura eraman du Urnietan bizi den hernaniarrak



Ainhoa Jauregi, liburuaren egilea. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Alaba erditu eta Hodgkin-en linfoma antzeman zioten. Gai-xotasuna onartzea kosta zitzaion, aurrena, kimioterapia saioak etorri ziren gero, eta albokoei laguntza eskatu beharra, ohituta ez zegoenean. Gainditu du gaixotasuna, baina diagnosiaren ezaguera eta tratamenduak iraun zituen sei hilabete horietan pasatakoak liburu batean argitaratzea erabaki du.

Nor da Ainhoa Jauregi?

Hernaniko emakumea, kazetaria, Baint ekoizpen enpresan egiten dut lana. 13 urte daramatzat dagoeneko Urnietan, 8 eta 3 urteko seme alabak dituk, oso urnietarrak biak. Duela hiru urte izan nuen bigarrena, eta lau hilabete pasa ostean Hodgkin-en linfoma minbizia antzeman zidaten.

Nola izaten da minbizia daukazula esaten dizuten une garrantz hori?

Antzeman esan dut, baina diagnosis ez zen hain erraza izan. Halako bultxo batzuk sortu zitzaizkidan lepoan, galtzarbeetan, eta ingresatu egin ninduten.

Medikuek, nonbait, nire azterketa txostenarekin komeriaren bat izan zuten... Bi hilabete lehenago, Urnietan beste emakume bat nire sintoma berdinekin hasi zela eta bere antza hartzen zion medikuak; baina, ez zidan esan nor zen, ezta zer zuen ere. Hala ere, berehala jakin nuen Itziar zela eta Hodgkin-en linfoma zuela. Beraz, esan dezaket kalean jakin nuela erietxean baino lehenago, zein zen nire gaixotasuna.

Eta, nola izan ziren egun, aste horiek?

Asimilazioa gogorra da, noski. Onartzen dut gaixotasuna, zertorikidan tratamendurako prestatzen hasten naiz, Itziarren aholkuak nire egin. Dieta makrobiotikoarekin hasi nintzen, bizi ohitura batzuk aldatzen, kimioterapiarekin hilea eroriko zitzaidanez pelukak, zapiak eta beste begiratzen... sendabidean parte aktibo izateko beharra nuen. Oso goian hasi nuen tratamendua, baino segituan jausi nintzen. Lehenengo kimioterapia saioak atzeratu egin zizkidaten,

defentsak igotzen ez zitzaizkidalako, eta horrek, lur jota uzten ninduen. Tratamenduaren bukaera urrutia ikusten nuen. Kimioterapiak bizitza aldatzen dizu erabat. Gainera, hasieran bizitzen ari nintzenaren kontzientzia erreala ez nuen; guzti hura nirekin joango ez balitz bezala jokatzeko nuen. Bizitza normala egiten jarraitu nahi nuen, baino bigarren edo hirugarren kimio saioa eta gero jabetzen naiz ezin nuela, eta eztanda egiten dut. Nire ondokoek ordaintzen dute, noski...

Laguntzarik nahi ez, baina eskatu egin behar... A ze txokea!

Bai, gogorra. Besteen egiteko modua onartzea ez da erraza, are gehiago zuk gauzak modu jakin batean egitea gustuko baduzu. Oso metodikoa naizela onartu behar dut, orain gutxiago baino hala ere... Zortzigarren kimio sesioa eta gero, konplikazioak etorri ziren nire osasunean, eta hilabetez tratamendua jaso gabe egon nintzen, seme-alabengandik urrun... Aste horiek gogoratzen ditut gogorren.

Pasa ziren zazpi hilabete, bukatu ziren kimioterapia saioak, eta erreallitatera buelta. Nolakoa izan zen?

Ziurgabetasun falta latza sentitu nuen. Fisikoki ez zara nahi bezala errekuuperatzen, mantso-mantso baizik. Urte bat baino gehiago behar izan dut nire onera bueltatzeko, kimioterapia saioak bukatuta. Eguneroko kezkak eta erreallitatera bueltatzea ez da erraza: lanera buelta, adibidez. Aldiz, perspektiba irabazten duzu, gauzei benetako balioa ematen, edo balioa beste modu batera ematen. Jabetzen zara txikikeriak diren gauzei balio handiegia ematen diozula. Minbizia kasuekiko oso sentibera bilakatu naiz, gehiegi agian. Medikuek azterketak sei hilabetez behin egin behar dizkidate aurrerantzean, eta orain arte hiru hilero izan dira. Askatu nahi dut bizi izan dudana, eta liburuarekin buru-belarri ibili izanak asko lagundu dit.

Nola sortu zen liburu bat idazteko asmoa?

Beti idatzi ditut gauzak, sentimenduak, denbora pasatzen denean gauza asko ahazteko joera baitugu. Espresatu ditut nire beldurak, berriro kazetari izateko beldurra, adibidez... Forma eman nion eta hementxe liburu. Filtrotik gabe eta egia osoarekin hitz egiten dut nire bizipenen inguruan. Nire helburu bakarra, nire esperientzia besteekin partekatzea da. Minbiziaz normaltasunez hitz egin, inoren adibide izateko batere asmorik gabe. Editorialekin akordiorik lortu ezean, han eta hemen galdetzen hasi nintzen, internet formatuan liburuak argitaratzen dituzten plataformekin, eta horatik ireki zen atea.

Nola eros daiteke liburu?

Amazon-en, kindle formatuan. Azken zuzenketekin gabiltza eta laster liburu fisikoa ere salgai egongo da. Herriko dendaren batean ere eskuragarri izango da, baino aurrerago zehaztuko dizuet non.

Zergatik erdaraz?

Ba, 14 urte daramatzatelako lanean erdaraz, eta erosoago sentitzen naiz, euskaraz baino gehiago.

Eta 'Parte de mi' izenburua?

Oraingo Ainhoaren parte bat da. Nik bizitako kontuen kontakizun zintzoa da, ziur aski idazketa on-ona ez daukana, baina benetako kontakizuna egiten duena, nire barne kon-



Laster, eskuragarri

Amazon-en eskuratu ahal izango da, Kindle plataforman. Paperezko edizioa laster argitaratuko dute, eta Urnietan salgai izango dela adierazi du.

fliktoa askatzeko balio izan didana.

Ze sentimendu eragitea nahiko zenuke irakurlearengan?

Gustatuko litzaidake minbizia tabua ez izatea gehiago gure gizartean, gaitzaren inguruan normaltasunez hitz egitea. Ez jakintasunak eramaten gaitu beldurak areagotzea eta horrela, prozesua askoz ere zailagoa da. Gainera, askotan minbizia duen batean aurrean ez dakigu nola jokatu. Niri gertatu zait norbait beste espaloiara joatea nirekin topo ez egiteko eta seguru nago, zer esan ez zekielako izan dela. Nik uste dut normaltasuna dela klabea. Horrez gain, jendeak niri gertatu zaidana ulertzea nahi nuke, eta minbizia daukanari lagungarria izatea. **Zerbait ikasi duzu, prozesu hone-tatik?**

Oso hauskorrak garela, bulnerableak. %200an bizi gara, asteburua noiz iritsiko zain, eta astelehenetik ostiralera ere zer bizi, gozatu ugari dago.

Zerbaiten damu zara?

Konfiantzazko jendearekin eduki ditudan haserre edo jarrera ez zuzenak noski... Eskerrak eman nahi nizkieke gertukoei, nirekin izan duten pazientziagatik.



Aurreko urteetako parte hartze prozesua. AIURRI

Parte hartze prozesua indartzeko informazio guneak

Ostiralean eta larunbatean "Parte hartuz 2020" kanpaina kalera aterako da

Erredakzioa URNIETA

2020ko aurrekontuen 150.000 euro zertan inbertitzeko erabakia herritarrekin batera hartu nahi du Urnietako Udalak. 2017an abiatutako joera izan zen, eta geroztik urtero urnietarrek parte hartze prozesuan murgiltzeko aukera izaten dute. Gehienez ere 50.000 euroko gastua izango duten egitasmoak izan daitezke, beti ere Udalaren eskumenekoak baldin badira. Parte hartzeko prozesua abiatu da, eta asteburu honetan informazio osoa zabaltzeko karpa ipiniko dute.

Ostiral honetan, informazio gune hori goizez eta arratsalde zabalik izango da. Goiz osoan zehar Etxeberri plazan, eta arratsaldean hasi eta iluntzera arte Idiazabal kaleko Guria ondoko plazatxoan. Ostiralean, gainera, proposamenak aurkezten dituzten herritarrek selfia ateratzeko aukera izango dute. Parte hartzea

sustatzeko berritasuna da, karpakara bisitaldiak areagotzeko helburu duena.

Larunbatean, bestalde, Urnietako Kiroldegiaren ondoan ipiniko dute karpa.

Bertara, aurkezpen ekitaldian esan bezala, proposamen zehatzak eraman daitezke. Eta baita galderak edo zalantzak adierazi ere. Informazio karpa horretan prozedura osoa emateko prest egongo dira.

Prozedura ezaguna zaionarentzat, herrian zehar proposamenak aurkezteko buzoiak aurkituko ditu.

Urtarrilekoa ez da parte hartze prozesu bakarra izango. Izan ere, lehen prozesua amaitu eta gutxira bigarrena abiaraziko dute. Haur parkeak edo plazak estaltzeko prozedura izango da. Udal arduradunek erabaki hori herritarrekin batera hartu nahi dute.



Mendi martxa egin zuteneko irudia. AIURRI

Urteko batzar orokorra

Denda Berri elkarteak, larunbat honetan

Erredakzioa URNIETA

Denda Berri pentsiodunen elkarteak Batzar Orokorra deitu du, larunbat honetarako. Lehen hitzordua arratsaldeko 17:00tan ipini dute, eta bigarrena 17:30ean.

2020rako jarduera programa eta gastuen aurrekontua aurkeztuko dituzte, besteak beste.



Egapexou antzerki taldea. AIURRI

Saio berria eskainiko dute

Urtarrilaren 28an, AEK euskaltegian

Erredakzioa URNIETA

"Tsunami" eskaini eta gero, Egape antzerki taldeko kideak pozarren zeuden. Urtarrilaren 28an taldeko laukote batek "Burrutia" antzezlan eskainiko du. 18:00tan, AEK euskaltegian.



Eguberrietan ikusgai izan zen "Puertas" izeneko erakusketa. AIURRI

"Asierren atea" artelana Urnietako Udalak eskuratu du

Asier Nieblaren senitartekoak atxekimendu berriak jasotzen ari dira Osoigo internet bidezko kanpaina

Erredakzioa URNIETA

Eguberrietan "Puertas" izeneko erakusketa ikusgai izan zen, Urnietan. Estatu mailan ematen diren indarkeria matxista kasu bakoitza salatzen asmoz sortu zen, eta antolatzaileek Asier Nieblari ateetako bat eskaini zioten. Sandra Garayoa artista izan zen ate horren egilea. Urnietako Udalak Asier Nieblaren atearen jabetza eskuratu du, Dimension agentziarekin lorturiko akordioari esker. Ohar bidez zabaldutakoaren arabera, "Atea Lekaio kultur etxean ikusgai jarriko da, urnietarrek beraien bizilaguna presente izaten jarraitu dezaten eta indarkeria matxistaren gaineko hausnarketak etengabea izan dadin herrian".

Urnietan Asier Nieblaren kasua indarkeria matxistatzat hartzeko ekimen asko egin dira, azken hilabeteetan.

Osoigo plataformaren deialdia

Internet plataformak, Nieblatarekin batera, Asierren kasua indarkeria matxistatzat hartzea eskatu nahi dio Eusko Legebiltzarrari. Aurreko Aiurri adierazi bezala, ordezkari eta herritar askok bat egin dute deialdiarekin. 553 herritarrek sinatu dute eskaera, honezkero.

Gipuzkoako sozialisten buru Eneko Andueza plataformaren horretan atxekimendua adierazi zuen. Baita Eusko Legebiltzarraren EH Bilduko Oihana Etxebarrieta parlamentariak ere. Osoigo plataforman zera adierazi zuen: "Asier Nieblaren senitarteko, lagun eta eskaera hau sinatu duzuen kide guztiei nire eta nire talde EHBilduren elkartasuna eta babesa helarazi nahi dizuet. Indarkeria matxista kasu bat da, eta zentzu horretan aitortua izateko lan egiteko prest gaituzue".



Urnietako
udala





©REALSOCIEDAD

Egun berezia Nahikarirentzat

FUTBOLA San Sebastian eguneko aitorza nagusiaren ordezkari lanetan izan zen, Hockey taldeko Nerea Belzunegirekin batera. Nahikari Garcia aitorza ekitaldi askotan izan da, baina azkenekoarekin bereziki harro nabaritu zaio. Sareetan hauxe idatzi zuen: "Egun berezia eta txuri-urdina. Gora Donostia!"



UKE

Kostata, baina garaipena

ESKUBALOIA Senior mailako Urnieta Quel Abogados taldeak ez du etsi nahi, eta Legazpiren aurkako partidaren garaipen berria lortu zuen (17-16). Kostata, baina azken unera arte borrokan aritzeak saria dakarrela ikusi zuten. Saikapenean, Egia Ligako liderra bi puntura izaten jarraitzen dute.



©GIPUZKOAPILOTA

Txapel berria Loitegirentzat

TRINKETEA Eskuz banakako Gipuzkoako txapelketako finalean, Loitegi urnietarrak garaipen berria eskuratu zuen. Urtarrilaren 18an Iruran jokaturako partidaren EPLE taldeko Aranburu garaitu zuen (40-26). Ostegun honetan, 21:00tan hasita, bi klubak elkarren aurka ariko dira Iruran. Eskuz binaka.

"Ez nuen espero garaipena lortuko nuenik"

TXIRRINDULARITZA Arene Etxarri adunarra Gipuzkoako txapelduna bilakatu da junior mailan pistako modalitatean. Anoetako belodromoan korritu zuen, eta lau frogetatik bi irabazi zituen. Andoaingo Txirrindulari Eskolan lehen urtea izanik, garaipen garrantzitsuak lortu ditu jada

Mikel Arberas ANDOAIN
Zenbat urterekin hasi zinen lehiatzen eta zein taldetan?

Kadete mailako lehen urtean hasi nintzen lehiatzen Gipuzkoa Ogi Berri Tolosako taldean. Aurten Andoaingo Txirrindulari Eskolara pasa naiz.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu mailari eusteko?

Orain arte kirol mota ezberdinak egin ditugu; mendian ibili gara, eta igerilekura eta gimnasia ere joan gara. Arlo fisikoan zentratu gara gehienbat. Horrez gain, astelehen, asteazken eta ostiraletan pistara joaten naiz entrenatzera; larunbatetan eta igandetan errepidean ateratzen gara. Ostegunetan, esan bezala, gimnasia joaten gara eta, orain arte, larunbatetan 4 orduko mendi bueltak egin izan ditugu.

Gipuzkoako txapelduna zara pistako modalitatean. Zein ezberdintasun daude pistako eta errepideko txirrindularitzaren artean?

Konplementarioak direla esan daiteke; hau da, errepidean ondo moldatzeko pistari ibiltzea ondo datorkizu, gainera neguan ez duzu aukera askorik kanpoan entrenatzeko.

Pistako lasterketak biziagoak izan daitezke, eta ez duzu menderik igo beharrik; denbora guztian toki berdinean biraka egoten zara. Horrez gain, lasterketen iraupena ezberdina izan daiteke, egiten diren buelten arabera. Nik, oro har, 15-20 eta 40 birako lasterketak egiten ditut.

Norbanakoak duen gaitasunen arabera, egokiagoa da pistari lehiatzea errepidean baino, baina pertsonen arabera da hori. Nire kasuan, igoerak ez zaizkit oso ondo ematen, beraz, zailagoa egiten zait errepideetan korritzea.

Pistako lasterketak arriskutsuak izan daitezke?

Pistan ez daude aldapa beheak eta bihurtze zailak, beraz, erortzeko aukera gutxiago dago;



Arene Etxarri etxeko atarian lasterketarako bizikletarekin. **AJURRI**

baina eroriz gero, kankatekoa handia izan daiteke.

Esanak esan, pistako bizikletek ez dituzte frenoak. Hortaz, peraltean gora igotzen garen heinean abiadura jaisten hasten gara eta gutxinaka frenatzen.

Nolakoa izan zen Gipuzkoako txapelketako garaipena?

Ez nuen espero. Txapelketan lau frogak egiten dira. Lehenengo bi frogak ondo egin nituen; hirugarrengoa, berriz, teknika eta bizitasuna behar dira, eta oso gaizki aritu nintzen lau garren postuan gelditu nintzen, 30 puntura. Edozein modutan ere, azkeneko frogaren puntuazioarena zen, eta nahiko ondo moldatzen naiz. Horrela ba, puntu asko lortu nituen eta lehenengo postura igaro nintzen.

Euskal Selektzioarekin ere korritu duzu...

Bai hori da. Bigarren urtean Espainiako txapelketetara joan

nintzen, eta aurrekoan txapelketa eta Kopan parte hartu nuen. Aurten, berriz, Kopan korritu dut Sevillan, eta, laister, Madrideko Kopa eta Tafallako txapelketan lehiatuko dut.

Espainiako selektzioarekin ere bi kontzentrazioetan parte hartu dut, bata azaroan izan genuen eta bestea abenduan. Horrez gain, ez dakigu otsailean beste bat izango dudan.

Etorkizunari begira non lehiatu nahiko zenuke, pistari ala errepidean?

Nahiago dut errepidean korritzea, politagoa iruditzen zait, baina agian emakumezkoentzako aukera gehiago daude pistari. Azken finean, ez da horren ezaguna, eta aurrera irtetzea errazagoa dela pentsatzen dut. Gainera, iparraldeko herrialdeetan txirrindularitzak garrantzia handia du, pistakoak batez ere, eta asko bultzatzen dute.

"NORBANAKOAK DUEN GAITASUNEN ARABERA HOBETO MOLDATU DAITEKE PISTAN EDO ERREPIDEAN"

"PISTAKO MODALITATEAK GARRANTZI HANDIA DU IPARRALDEKO HERRIALDEETAN"

Lorpen historikoa, liga eskuratuta

ESKUBALOIA Liga amaitzeko jardunaldi baten faltan, Leizaran taldeko jubenilek liga matematikoki eskuratu zuten. Garaipenarekin, 1994an lortutako balentria errepikatu zuten. Etxean bertan lortu zuten, jendetzaren aurrean

Erredakzioa ANDOAIN
Leizaranek Egia Baztarre taberna taldeari 30-29 irabazi zion Allurralden joan den igandean jokatu zen partiduan. Donostia-ko taldea ligako lider gisa zeto-rreren Andoainera, eta nahitaez, Leizaranek menden hartu beharra zeukan haren gainetik jartzeko. Askok zegoen jokoan, eta zaletuek Allurraldeko harmailak jendez lepo jarri zituzten, Leizarango mutilak animatzeko irrikatan. Partidua guztiz lehia-tua eta emozioz beterikoa ikusi ahal izan zuten, eta garaipena-rekin gozatzeaz gain maila han-diko eskubaloia ikusteko auke-ra eduki zuten.

Lehen zatian Leizaran aurretik iritsi zen (17-15), eta alde horri eusten jakin zuen bukatu arte, eta azkenean gol bakar baten alde atera zion aurkariari.

Igandeko garaipen horri esker, Leizaran jubenilen mailan Gipuzkoako txapeliduna da jada,



Leizaran jubenil mailako mutilen taldeak denboraldi bikaina egin du. AIURRI

nahiz eta txapelketa amaitzeko neurketa bakarra geratu. Zazpi taldek ekin zioten Gipuzkoako txapelketako 2. faseari: Egia Baztarre Taberna, Ereintza Beisier, Bacalaos Santymar Hondarribia Bidasoa, Urnieta Guria

Jatetxea, Egia Endika Harategia, Ordizia Orkli eta Leizaran.

Leizaranek Urnieta Guria Jattetxearen kontra jokatu du ligako azken partidua. Igandean, 12:00etatik aurrera izango da neurketa, Urnietako kiroldegian.

1994an lortutako liga hura gogoan



Sareetan Beñat Sarasolak, Iker Urruzolak eta klubak berak iraganeko lorpen hura gogoan izan zuten. LEIZARAN

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Urola-Euskalduna	1-2

SAILKAPENA

1	Eibar Urko	42 puntu
15	Euskalduna	17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:15	Euskalduna-Eibar Urko / Lar, 25
-------	---------------------------------

NESKAK, 0. ERREGIONALA	
Tolosa-Urnieta	4-0

SAILKAPENA

1	Arizmendi	46 puntu
11	Urnieta	11 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Urnieta-Añorga / Lar, 25
-------	--------------------------

ERREGIONAL PREFERENTE	
Axular-Urnieta	1-2

SAILKAPENA

1	Vasconia	37 puntu
15	Urnieta	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta-Hondarribia / Lar, 25
-------	-------------------------------

ERREGIONAL 1. MAILA	
Euskalduna-Intxurre	3-1

SAILKAPENA

1	Segura Goierri	31 puntu
6	Euskalduna	23 puntu

PREFERENTE NESKAK, IGO. FAS	
Intxurre-Euskalduna	2-3

SAILKAPENA

1	Mariño	3 puntu
2	Euskalduna	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:15	Euskalduna- Lizeoa / Lar, 25
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Astigarraga-Euskalduna	2-1

SAILKAPENA

1	Euskalduna	36 puntu
2	Touring	36 puntu

JUBENIL MAILA, KOPA	
Igeltegi-Urnieta	0-1
Euskalduna-Zarautz	3-0

SAILKAPENA (3. MULTZOA)

1	Hernani	6 puntu
3	Urnieta	6 puntu

SAILKAPENA (4. MULTZOA)

1	Lengokoak	6 puntu
4	Euskalduna	3 puntu

KADETEAK, IGOERA FASEA	
Trintxerpe-Euskalduna	1-1

SAILKAPENA

1	Lazkao	9 puntu
2	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:15	Euskalduna- Behobia / Ig, 26
-------	------------------------------

KADETE, KOPA	
Urnieta-Ostadar	5-0
Hernani-Euskalduna	2-1
Sporting de Herrera-Urnieta	3-3

SAILKAPENA (5. MULTZOA)

1	Ekintza	6 puntu
3	Urnieta	2 puntu

SAILKAPENA (7. MULTZOA)

1	Urnieta	6 puntu
7	Euskalduna	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00	Urnieta-Amara Berri / Lar, 25
-------	-------------------------------

KADETE NESKAK	
Euskalduna-Ostadar	4-0
Urnieta-Usurbil	1-1

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Aloña Mendi-Urnieta	29-24

SAILKAPENA

12	Urnieta	6 puntu
----	---------	---------

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK	
Urnieta-Legazpi	17-16

SAILKAPENA

2	Urnieta	20 puntu
---	---------	----------

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Leizaran-Elgoibar	31-28

SAILKAPENA

1	Saieko	22 puntu
4	Leizaran	16 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK	
Leizaran-Egia	30-29
Hondarribia-Urnieta	32-31

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Urnieta- Leizaran / Ig, 26
-------	----------------------------

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK	
Usurbil-Leizaran	19-19
Astigarraga-Urnieta	18-21

ASTEBURUKO PARTIDA	
16:30	Leizaran-Astigarraga / Lar, 25
16:30	Urnieta-Pulpo / Lar, 25

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
ASTEBURUKO PARTIDA	

18:00	Leizaran Horia-Bera Bera / Lar, 25
10:45	Leizaran-Pulpo / Ig, 26

GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
ASTEBURUKO PARTIDA	

10:15	Urnieta- Usurbil / Ig, 26
12:00	Urnieta- Urola / Lar, 25
11:45	Leizaran Horia- Aiala / Lar, 25

ARETO FUTBOLA	
LIGA, 1. JARDUNALDIA	

Euskalduna-Pizzeria B17	3-4
-------------------------	-----

11:45 Leizaran Horia- Aiala / Lar, 25

ASTEBURUKO PARTIDA	
15:00	Euskalduna- Egintza / Lar, 25

SASKIBALOIA	
SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA	

Aloña Mendi-Zurrut	71-60
--------------------	-------

KADETE GIZONEZKOAK	
Andraitz-Ganbara	62-52

ASTEBURUKO PARTIDA	
09:30	Ganbara- Antigua Luberri / Ig, 26

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 24

ANDOAIN Erakusketa

Aitor Arruti eta Mak Jürgen gazteak.
Bastero, azken eguna.

URNIETA Lehiaketa

Gazte diaporama lehiaketa.
Izena emateko azken eguna.

URNIETA Parte hartzea

Informazio karpa ipiniko du Udalak.
10:00-14:30 Etxeberri plaza.
17:00-20:00 Guria ondoan.

LARUNBATA 25

URNIETA Parte hartzea

Informazio karpa ipiniko du Udalak.
10:00-14:30 Kiroldegia ondoan.

ANDOAIN Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
16:00, 18:30, Bastero.

URNIETA Batzar orokorra

Denda Berriren batzar orokorra.
17:30, Denda Berri.

ANDOAIN Ospakizuna

"Ezina Egina". Info: 6. orrialdea.
18:30, Goikoplaza.

ASTELEHENA 27

ESKUALDEA Matrikulazioa

Ikasleak matrikulatzeko epea zabalik.
Azken eguna: Otsailak 7.

URNIETA Bilera

Merkataritza sustatzeko bigarren
bilera deitu dute.
20:00, Lekaio.

ASTEARTEA 28

URNIETA Antzerkia

"Bururnieta", Egape antzerki
taldearen eskutik.
18:00, AEK euskaltegia.

ASTEAZKENA 29

ANDOAIN Entsegua

Santa Agedako erronda.
19:30, Ambrosia Olabide.



Haur ikuskizuna, igande honetan Urnietako Saroben. AIURRI

URNIETA Izeba tekla haur ikuskizuna

"Izeba tekla", Xabier Lizasoren eskutik. Musika, jolasa eta pianoa. Horrela aurkeztu dute igandeko haur ikuskizuna: "Haurrak eta musika dira protagonista, ez pianista. Haurrek musika eta pianoa modu ludiko eta dibertigarrian deskubrituko dituzte; jolasaren bidez musika deskubritzera iritsiko dira. Hori bai, kantatzen amaituko dugu, eta kantuz etxera joango gara".
Urtarrilak 26, igandea. 18:00, Sarobe.

-I-
**LARRAMENDI
EGUNA**

2020,
urtarrilak 25
larunbata
**ANDOAINGO
Goikoplazan
Ordua: 18:30**

450 andoainder
euskaltzale behar
ditugu!

"EZINA EGINA"
leloaren giza-irudia
osatu eta argiztatzeko

Zatoz eta ekar itzazu zure
inguruko euskaltzaleak!!


Giza irudia osatu ondoren txokolate
beroa izango da gure herria!!

Zure euskaltzale taldearekin elkarri jarduera onak
edo, euskaltzale taldearekin elkarri jarduera onak

Berehala
www.mintzalagun.org
andoain@mintzalagun.org

Berehala
www.mintzalagun.org
andoain@mintzalagun.org

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Las buenas intenciones**


Igandea, 26.
19:30.
Astelehena, 27.
19:30, 22:00.

Turuleka oiloa

Ig, 26. 17:00.

Euskaraz,
haurrentzat.

Oharra: Larunbatean
ez da zinema
emandaldirik izango.



SINOPSISIA

**Turuleka oiloa**

Zuzendariak: Eduardo Gondell, Víctor Monigote. **Gidoia:** Pablo Bossi, Juan Pablo Buscarini, Eduardo Gondell. **Herrialdea:** Espainia-Argentina (2020). **Generoa:** Animazioa. **Hizkuntza:** Euskara.

Sinopsia: Itxura xelebrea du, eta horrexegatik Turulekak gainerako oiloen txantxak pairatzen ditu. Harik eta Isabel musika irakasleak berarekin eramaten duen arte. Dohain berezia du: Abestea!

Andoaingo MINTZALAGUNAK **BIDELAGUNAK**
behar ditu!

Gero eta gehiago dira euskara praktikatu nahi
duten herritarrak. Elkartuko al zinateke astean
ordubetez eurekin?

Zer gutxiago, euskararen erabilera indartzeko?

**Bide
lagun**



Anima zaitetz! Deitu eta egitasmoaren berri emango dizugu.

**Mintza
lagun** 943 300 831 - 663 132 658
www.mintzalagun.org
andoain@mintzalagun.org



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Iker eta Haiz
Zorionak bikote!
7 eta 4 urte
betetzen
dituzue, ze
handiak zareten
jada! Zein
zoragarriak
zareten,
ikaragarri
maite
zaituztegu!
Amatxo eta
aitabxo.



ANDOAIN
Mikel
Hilaren 28an,
Mikel etxeko
txikiak, 9 urte
handi egingo ditu.
Zorionak eta muxu
handi bat etxeko
guztion partetik.



ANDOAIN
Nemesio Zatarain
Urtarrilaren 23an
urteak bete
zenituen. Zorionak
etxeko eta batez
ere biloben
partetik: Unax,
Aner eta Oinatz.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ODOL EMAILEAK

URNIETA

Urtarrilak 31, ostirala
18:30-20:30.
Anbulatorioa.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 25 eta igandea 26
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 592 415 Andoain.

URNIETA

Larunbata 25 eta igandea 26
ODRIOZOLA: Idiazabal, 18.
943 334 014 Urnieta.

GAUEZ

ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022 Hernani.

Mintzalaguna egitasmoan murgiltzeko deialdia

"Astean ordubete baduzu, eta euskararen erabilerari lagundu nahi badiozu, ez egin zalantzarik"

Aiurri komunitatea
Mintzalagunak / ANDOAIN

Euskararen erabileran eragiteko ardura guztiona da. Andoain guztion artean osatzen baitugu, eta gure esku dago zer hizkuntzatan bizi nahi dugun herrian.

Horregatik, egin zaitez bidelagun! Mintzalagunean parte hartzeak onura bikoitza du: batetik, euskarari lagunduko diozu, eta bestetik, hitz egiten duenari izugarrizko mesedea egingo diozu. Bai, zuk ere asko duzulako

emateko, eta ziur gaude bueltan ere asko jasoko duzula. Zuk uste duzuna baino gehiago eskertuko dizute. Astean ordubete baduzu, eta euskararen erabilerari lagundu nahi badiozu, ez egin zalantzarik eta zatoz gugana! Gainera, doakoa da.

Informazio gehiago

Etor zaitez Andoaingo AEK euskaltegira edo udaletxera hurbil zaitezke. Bestela, deitu telefono honetara: 662 132 558 (whatsapa ere idatz dezakezu).



Mintzalaguna egitasmoak parte hartzea sustatzen du. AIURRI

AURARENKONTU -IREKIAK 2020

Sartu www.gipuzkoa.eus/partaidetza webgunean eta aukeratu Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzen jarraitzeko proiekturik interesgarrienak.

Proiektuen hautaketa: 2020ko urtarrilaren 21etik otsailaren 7ra.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Andoaindar jatorriko lagunak babesa jaso zuten Oiartzabalek. Argazkian, Gaspar Irulegi, Maider Irulegi, Joxe Mari Oiartzabal, Maria Luisa Zuriarrain, Ana Senpere, Estanis Elorza eta Odi eta Kira Elorza Irulegi Urtoki elkartearen kanpoaldean, astelehen arratsaldean. San Sebastian egunaren bezperan eta egunean bertan aitortza ezberdinak jaso zituen Oiartzabalek. AIURRI

San Sebastian eguneko protagonista

Joxe Mari Oiartzabal Andoaingo musikariak Donostiako Udalaren aitortza publikoa jaso zuen, San Sebastian egunean. Bere ekarpena balioan jarri nahi izan zuten: "Urte asko baitaramatza Donostiaren aldeko lan isil, dotore eta doanekoa egiten"

Xabier Lasa DONOSTIA

Oiartzabalen eskuetatik igaro izan dira tradiziozko Donostiako jai nagusietan kalea girotzeko doinuaren moldaketa gehienak. Batzuk aipatzearren, San Sebastian Eguna, Kaldereroak, Inauteriak... Sarriegik eta beste zenbait konposatzaileek sortutako makina bat pieza moldatu

izan ditu instrumentu ezberdinekin jotzeko; doinu horiek guztiak bost diskotan bilduta daude aspalditxotik. Bada, egin-kizun horretan erakutsi izan duen maisutasuna eta eskuza-baltasuna eskertu nahi izan diote. Horrexegatik Eneko Goia Donostiako alkateak ohorezko batuta eman zion, jaia aurkez-

teko urtarrilaren 15ean egin zuten ekitaldian.

Urtarrilaren 19tik 20rako gauean, berriz, gauerdiko hamabiak zirenean, Konstituzio plazako Udal liburutegiko balkoitik egin ohi den ekitaldi jendetsuan, Eneko Goia alkateak eta Joxe Mari Oiartzabalek banderak igotzeko ardurak har-

tu zituzten; Alkateak Donostiako bandera igo zuen, eta Oiartzabalek ikurriña.

Banderen errituak eman zion hasiera jaiari, eta hartaz gero, Joxe Mari Oiartzabal Konstituzio plazara jeitsi, eta Errenteriako Musika Banda zuzendu zuen, oholtzan zegoen Gaztelubideren danborradari doinuak ipiniz. Donostiarrek bihotzean daramatzaten San Sebastian martxa eta beste zenbait doinu interpretatu zituen Bandak, ohorezko batuta eskuan zuen zuzendariaren agindutara jarrita.

Konstituzio plazako hasierako ekitaldi hori egin ostean, Donostiako 19.000 herritarrek, 155 danborradatan antolatuta, danbor eta kupel hotsak zabaltzen joan ziren hiriko kale eta auzoetan, hogeita lau ordu irauten duen festa giroa sortuz.

"Donostia hiriarekin eta hiritarrek eskertuta nago"

Oiartzabalek jaiaren biharamunean adierazi zuenez "jendaurreko ardura handiak jarri zizkidaten bandera igotzearen ekitaldiko gauan, eta egia esan, gauzak trakets ez egitearekin nahikoa eduki nuen. Liburutegiko sala jendez gainezka jarri zen politikariekin, kazetariekin eta gonbidatuekin, eta han ez zen giro! Gero ere, plazara jaitsi, eta han ere zer esanik ez festaz gozatzeko bildu ziren danborjole, dantzari, musikari eta herritarrek! Egoera horretan zaila da lasai egotea, eta zailagoa gozatzea! Eginbeharrekoa txukun egin, eta kito! Hori bai, hurrengo egunetan hasten zaizkizu gogora etortzen bizi izandako emozio eta sentimenduak, eta orduan hasten zara bizi izandakoaren neurria hartzen. Oso

eskertuta nago Donostiako hiriak eta herritarrek egin didaten eskertzarekin. Gogoangarria izan da dena".

Urtoki elkartearen eskertza

Oiartzabalentzat aitormen atala ez zen igande gau horretan amaitu. Izan ere, astelehen arratsaldean, Amara auzoko Urtoki elkarteak ere omenalditxo eskaini zion, bere danborradari ekin aurretik. Berriki, Joxeramon Berrondok eta biek elkarte horren ereserkia sortu dute, eta biei esker ona adierazi nahi izan zieten. Berrondok ezin izan zuen agertu ekitaldira, ordu horretan Tximeletak txarangarekin musika jotzen ari baitzen Donostiako beste auzoren batean. Horrela, Maria Luisa Zuriarrain Oiartzabalen emazteak jaso zuen hari zegokion oroigarria.

Oiartzabalek, aurtan 150 urte bete dituen Union Artesana elkartearekin eta Errealeko emakumezkoen hockey eta futbol taldeetako jokalariekin batera partekatu du esker oneko aitormen eta omenaldien atala.

Bestalde, esan beharra dago Oiartzabalekin batera urtean zehar musika ekitaldietan estu-estuan aritzen den Gora Kaletxiki txaranga ere galtza bete lan ibili zela. San Sebastian egunean zehar hiru danborrada laguntzen ibili ziren: Amarako Santiagomendirena, Deustuko Unibertsitatearena eta Altzako elkartearena.

"DONOSTIAKO HIRIAREN ETA HERRITARREN AITORTZAREKIN ESKERTUTA NAGO"

IZEBA TEKLA

MUSIKA JOLASA PIANO

XABIER LIZASO

Urtarrilak 26, igandea
Sarobe AEG. 18:00etan
Euskaraz
Sarrera 3 €